

2018KO GSEF BILBON ETA ARRASATEN

Joan den astean, urriaren 1, 2 eta 3an, Foro Sozial Ekonomiko Globalaren (GSEF) laugarren edizioa egin zen Bilbon, eta 84 herrialdetako 1.700 lagunek parte hartu dute, tartean egonik administrazio publikoetako ordezkariak, alkateak, hirugarren sektoreko eragileak, nazioarteko erakundeak eta ekonomia sozialeko adituak.

“Ekonomia Soziala eta hiriak. Garapen lokal inklusibo eta iraunkor baterako balioak eta lehiakortasuna” izenburupean, hiru egunetan 5 osoko bilkura egin ziren, hau da: “Ekonomia Soziala sustatzea: moda edo konpromisoa?”, “Ekonomia Soziala hirien aroan”, “Ekonomia Sozialaren aldeko apustua: hurbilpena kontinente desberdinetatik”, “Hiri kooperatiboa” eta “Garapen iraunkor eta inklusibo baterantz Ekonomia Sozialetik”. Gainera, 42 tailer landu ziren, 125 egitasmorekin, hainbat gai tratatzeko, hala nola inklusio soziala, ekintzailtza, enpresen eraldaketa, sinergiak indartzea, politika publikoak, hezkuntza, gazteria eta berrikuntza.

Foroa asteazken goizean amaitu zen, urriak 3, klausura saio batekin, zeinean amaierako deklarazi bat eta gazteriaren manifestu bat irakurri ziren, eta 2020ko GSEF hartuko duen egoitza jakinarazi zen, alegia, Mexiko hiria.

Arizmendiarietaren Lagunak Elkarteak moderatzaile bat jarritz parte hartu du Foroan, Jose Mari Larramendi, “Entitateen arteko Esperientziak” lantzeko tailerrean, eta Euskalduna Jauregiko hallean poster bat ere jarri zuen, Foroaren egoitza bertan baitzegoen.

Eta adierazi behar da, hasierako saioan, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Juan Mari Aburto Bilboko alkateak irailaren 27an Eusko Legebiltzarrean aho batez onartu zen Legez Besteko Proposamena aipatu zutela; 75 parlamentarik onartu zuten proposamena, “Enpresan parte hartzeko euskal eredu inklusiboa” izenarekin, eta bereziki aipatu zuten “Arizmendiarietaren Lagunak Elkarte”, Eredu horren sustatzaile moduan.

Foroak Arrasaten jarraitu zuen, urriaren 3an arratsaldez eta 4an goiz eta arratsaldez. Bilboko GSEFeko 200 parte hartzaile inguru hurbildu ziren Arrasatera, kooperatibismoaren Silicon Valley ezagutzera.

Eta, taldetan banatuta, Udalak eta herriko hainbat eragilek markatu zituzten lau ibilbide egin zituzten. Horietako bat fabriken ibilbidea zen, non Fagor Arrasate ikusi zuten, eta beste bat elizaren ibilbidea, Arizmendiarietaren gorpua dagoen parrokia bisitatu. Beste bi ibilbideak izan ziren ekonomia sozial eta solidarioarena, non Emaus, Gureak eta Caritas bisitatu zituzten, eta hezkuntzaren ibilbidea, gure Elkartearen ardurapean, Arizmendi Ikastola eta Unibertsitatea bisitatzeko; bertan, Arizmendiarietaren Lagunak Elkartearen aurkezpen bat egin zen.